



EUOPAR BATASUNA
Europako Gizarte Funtza
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

UNION EUROPEA
Fondo Social Europeo
El FSE invierte en tu futuro



Lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Agencia de Colocación Autorizada - Baimendutako Enplegatze-agentziak
Nº 1600000181

Horario de atención - Ordutegia:
Lunes a Viernes 09:00 - 14:00 Astelehenetik ostiralera
Cita previa - Hitzordua eskatzeko: 94 493 84 00 - enplegu@ikaslan.net

LEHEN AUKERA PROGRAMA 2021

 iKASENPLEGU

AURKIBIDEA

1. Diruz lagundu daitezkeen kontratuen baldintzak
2. Kontratatutako pertsonen bete beharreko baldintzak
3. Enpresa eta erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak
4. Enpresa eta erakunde onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak
5. Diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa
6. Prozedura eta epeak
7. Izapideak egiteko laguntza



Gutxienez 6 hilabeteko irauopena duten lan-kontratu mugagabeak edo praktikaldiko kontratuak, baldin eta kontratu horien xedea EAEn dauden lan-zentroetako lanpostuetan jarduteko Lanbide-EEZ lan-eskatzaille gisa izena emanda dauden gazte langabeak kontratatzea baldin bada.

- **Hasiera 2021ko urriaren 29ra arte.**
- Lanaldi osoa edo partziala (ezin izango da ezarritako lanaldiaren % 70 baino gutxiagokoa izan).
- Kontratatutako pertsonaren ikasketa- edo prestakuntza-mailari egokitzen zaizkion lanpostuak.
- Idatziz formalizatzea, horretarako titulazioa, hasiera-data, amaiera-data, jardunaldia eta lanpostua adieraziz. Horrez gain, Lehen Aukera programari egin beharko zaio erreferentzia, eta hala badagokio, baita kontratua zein eskaintzatik datorren ere.
- **Enplegu garbia** sortzea

16 urte baino gehiago eta 30 urte baino gutxiago duten gazteak.

- Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda egotea.
- Gazte Bermea sisteman izena emanda egotea.
- Azken bost urtetan titulua eskuratu izana.
- Tituluarekin lotutako enpleguetan 6 hilabeteko esperientzia izatea gehienez ere.
- Honako titulazioetakoren bat izatea:
 - Goi-mailako titulazioa edo unibertsitateko gradua
 - Erdi-mailako titulazioa
 - Goi-mailako heziketa-zikoak (LH II)
 - Erdi-mailako heziketa zikloak (LH I) eta profesionaltasun-ziurtagiriak

Deialdi honetan zehaztutako kontratu mugagabeak eta/edo praktikaldiko kontratuak egiteagatik diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte enpresa pribatuek (haien forma juridikoa edonolakoa izanda ere), banakako enpresaburuek, ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, baita elkarte eta fundazioek ere, baldin eta 17. artikuluan ezarritako baldintza orokorrak eta honako hauek betetzen badituzte:

- a) Egoitza soziala edo fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.
- b) Administrazio publiko batek edo gehiagok % 50eko edo gehiagoko partaidetza zuzena edo zeharkakoa ez izatea.
- c) Enpresako Langileen Legezko Ordezkaritzari (LLO) deialdi honen babesean kontratatzeko asmoaren berri ematea, kontratu mota, kontratazio-aldia eta bete beharreko postua adierazita. Enpresak eskaeran berariaz adierazi beharko du LLO baduen ala ez.
- d) Europako Batzordearen aurretiazko erabakiaren bidez laguntza bat legearen aurkakoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela adierazi ostean ez egotea berreskuratze-agindu baten zain.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzen enpresa eta erakunde onuradunek baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

- a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea.
- b) Diru-laguntzak itzultzeko dagozkion ordainketa guztiak eginak izan beharko ditu.
- c) Erakunde eskatzailearen xedeak eta helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolamendua edo estatutuak gizonen eta emakumeen tratu- nahiz aukera-berdintasunaren printzipioaren arabera izatea.
- d) Zigor- edo administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorrak ez jaso izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez jaso izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.
- e) Ez egotea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, diru-laguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Enpresa eta erakunde onuradunei diru-laguntzak onartzeko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbesteko baldintza izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik bideratzen ari diren itzultze- edo zigor-prozedura guztiak amaituta egotea.

Praktikaldiko kontratua edo kontratu mugagabea, titulazio akademikoaren arabera	Urteko gutxieneko ordainsari gordina (aparteko ordainsariak gorde)	Praktikaldiko kontratua		Kontratu mugagabea	Praktikaldido kontratua		Kontratu mugagabea
		Diru-laguntza 6 hilabeterako	Diru-laguntza 12 hilabeterako		Emakume diru-laguntza (6 hilabete)	Emakume diru-laguntza (12 hilabete)	Emakume gutxiko diru-laguntza
Lizentzia, ingeniaritza, arkitektura, masterra (Bologna plana), Unibertsitate diploma, ingeniaritza teknikoa, arkitektura teknikoa edo Bologna Planeko unibertsitate-gradua.	21.200,00 €	5.300,00 €	8.480,00 €	12.700,00 €	5.830,00 €	9.328,00 €	13.970,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	18.200,00 €	4.550,00 €	7.280,00 €	10.900,00 €	5.005,00 €	8.008,00 €	11.990,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), Oinarrizko Lanbide Heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	14.000,00 €	3.500,00 €	5.600,00 €	8.400,00 €	3.850,00 €	6.160,00 €	9.240,00 €

Aipatutako diru-laguntzen zenbatekoak lanaldi osoko kontratuei dagozkie. Denbora partzialeko kontratuetan, zenbatekoak lanaldiaren arabera doituko dira.

DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO EPEA: 2021KO URRIAREN 29RA ARTE

Diru-laguntzak honela ordainduko zaizkie enpresa kontratatzaileei:

a) Lehen ordainketa (onartutako diru-laguntzaren % 52) 2021ko ekitaldiko aurrekontuetako ordainketa-kredituaren kontura, diru-laguntza emandako unean.

Ordainketa egin baino lehen, Lanbidek egiaztatuko du Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emanda dagoela langilea eta plantilla handitu egin dela.

b) Bigarren ordainketa (% 48, edo justifikazioaren ondorioz dagokion kopurua), betiere, diruz laguntzekoak diren jarduketak justifikatuta, 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2021ko ekitaldiko konpromiso-kredituaren kontura.

Kontratuak justifikatzeko, enpresa onuradunak azken memoria bat aurkeztu beharko du, kontratatu dituen pertsonen zerrenda eta kontratuen iraupena jasoko dituen.



Lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

Agencia de Colocación Autorizada - Baimendutako Enplegatze-agentziak
Nº 1600000181

Horario de atención - Ordutegia:
Lunes a Viernes **09:00 - 14:00** Astelehenetik ostiralera
Cita previa - Hitzordua eskatzeko: **94 493 84 00** · enplegu@ikaslan.net

IKASLAN BIZKAIAtik egin beharreko izapide guztiekin lagunduko dizugu.

Tel.: 94 493 84 00

enplegu@ikaslan.net

ERAKUNDE ONURADUNEN BALDINTZETATIK KANPO GELDITZEN DIRA DEIALDI HONETAN

erakunde autonomoak eta elkarte publikoak, herri-administrazio baten mendeko elkarteak edo erakundeak eta eskuragarri dauden enpleguetarako aldi baterako lanen enpresak.



Lanbide

Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo